

MIREN ARANTZA MADARIAGA

## “Berdintasunaren aldeko borrokaren estrategiak aldatu behar dira, prozesua oso motel baitoa”

*Miren Arantza Madariaga Aberasturi (Gautegiz-Arteaga, 1967). Zuzenbidean lizentziatua da Deustuko Unibertsitatearen eskutik, eta abokatu-lanetan ari da 1993tik. Gainera, 1994tik Higiezinen jabetzako agentea da. Gautegiz-Arteagako udaleko zinegotzi izan da 1991tik 1995era, eta alkate, berriz, 1995etik 2007ra arte. Era berean, EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Erakundeko idazkari nagusi izan da 2005eko irailetik 2009ra bitartean. Gaur egun Berdintasun Politiken Nazioarteko Berrikuntza Zentroko (CIINPI) zuzendaria da.*

Gizarteko zein sektoretan ematen da desberdintasun handiena gaur egun?

Desberdintasuna sektore guztietan ematen da. Jakina, arlo batzuetan beste batzuetan baino agerikoagoa da, baina berdintasun-itxura dutenak arretaz aztertzuz gero, horrelakorik ez dagoela ikusiko dugu. Adibidez, hezkuntzaren arloan ustez berdintasuna ematen da. Are gehiago, badirudi emakumeak direla nagusi, baina hori hezkuntzaren lehen mailetan gertatzen da; unibertsitatera hurbiltzen goazen heinean egoera aldatu egiten da, katedratikoen artean edo errektoreen artean, esaterako, gizonak dira nagusi.

Argi dago gizarte honetan berdintasuna ez dela berez sortzen. Sustatu beharra dago, baina ez dakit hori goitik edo behetik egin behar ote den...

Alde guztietatik. Egia da urte asko direla berdintasuna behetik bultzatzen dela eta legeak onartu diren arte ez direla gauza asko aldatu edo abian jarri. Tamalez, gizarte-mugimendua ez da nahikoa gauzak lortzeko. Gizartearren

mentalitate-aldaaketa behar da gauzak modu naturalean alda daitezen. Bainha hori oso zaila da, urte askotako lanak ez du aurreikusitako emaitzarik izan, eta hainbat gai legez inposatu behar izan dira, ez zegoen beste aukerarik, hori izan da kuoten kasua, esaterako.

Agian batzuk ez dira ados egongo, baina bestela, ez genuke gaur egun dugun parlamenturik izango, bertan diren emakumeekin, ez lego ke gobernu paritarioik, ez beste hainbat gauza. Argi dago hori guztia ez dela nahikoa, baina aurrerantz ematen diren urrats txikiak dira, berdintasunera modu naturalean eramango gaituen mentalitate-aldaaketa lortzen dugun bitartean.

Esan duzunez, gauza batzuk ez dira atera aurreikusi moduan. Zeri buruz ari zara?

Gazteak, batez ere neskak, lanean hastean konturatzen dira berdintasunik ez dagoela: neska ikasleak mutilak baino nota hobea izan baditu ere, ikusten du lanean lankide mutilak aurrera egiten duela eta berak, berriz, ez; era berean, bikotekidearekin bizitzera joaten denean, aldamenean duena mutila bada, konturatzen da biziakideak ez duela etxeiko lanen ardura bereganatuta, eta bera lanaldi bikoitzta egiten hasten da, etxeian eta kanpoan... Berdintasunaren alde eta indarkeriaren aurka egiten ari den lan guztia gazteen artean ez dela errotu ohartzen zara. Tamalgarria da, eta oraindik egiteko asko dagoela erakusten du.

Zeintzuk dira Berdintasun Politiken Nazioarteko Berrikuntza Zentroaren lan-ildoak?

Zentroaren lanak hiru zutabe ditu: batetik, aipatu dugun emakumeen eta gizonen arteko



adiskidetzea, bidea elkarrekin egin behar dugula ulertazaraztea. Bigarrenik, gizarte-masa sortzea, esparru honetan lan egiten duten elkarteen eta erakundeen arteko sarea, izan ere, koordinazio apur bat behar baitugu erantzungsduen gizarte-masa sortzeko, gizarte-gihar moduko bat, mugituko dena eta guztiaren artean indartsu aurrera egitea ahalbideratuko duena. Hirugarren zutabea, berriz, ideia-laborategia da; gizartearren sektore guztietatik berdintasun-politika publikoetan egiten den lanaren berri jaso nahi dugu, lan hori aztertu, zer egiten jarraitu behar dugun ikusi eta gizartearren aldetik lan-ildoa finkatu, erakundeak ez baitira denetara iristen.

Urte batzuk daramatzazu berdintasunaren alde borrokan, Emakunden izan zara eta bertatik bertara jarraitu duzu gaia. Ildo horretan bilakaearrik izan al da azken urteotan?

Bai, bilakaera eman da, baina batean kale bestean bale gertatzen da. Aldatu diren gauza asko daude, arlo batzuetan aurrerapausoak ematen ari dira, baina beste alde batetik zaplaztekoak jasotzen ditugu; esaterako, gazteen artean egiten diren azterketa askoren emaitzak penagarriak dira. Lan asko dago egiteko eta ez dugu mezua behar bezala igortzen, estrategiak aldatu behar dira, prozesua oso motel baitoa.

Maider Sillero

Elkarritzeta osoa: [www.euskonews.com/598zbk/](http://www.euskonews.com/598zbk/)

La entrevista completa está disponible en euskera y castellano en la dirección mencionada.

PIARRES AINCIART

# Jansenismoa Baionan XVII. eta XVIII.mendean

**X**VII.mendearren hastapenean katolizismoa indarrean zegoen berriz Frantzia osoan, Protestanteen Erreforma gainditu ondoan. Erregetzaren laguntzarekin, Eliza katolikoaren boterea azkartua zen berriz. Emekia-emeke erresuma frantsesean, "une loi, un roi, une foi" Louis XIren lema gauzatuko da. Eta Jansenismoaren ideiak ez dira onartuak izanen. Nola sortu zen mugimendu teologiko, moral eta hondarrean politiko hori? Mende horren hastapenean, eta erlijio gerlen ondotik, hastapeneko kristautasunaren garbitasunaren behar gorriaren gutizia sendi zen, ezaxolkerietarik urrunzeko, apez eta kristau egiazkoak formatzeko. Frantzian Calvinen zorroztasunak eragin handia zeukan intelektualen izprietuetan, eta predestinazio ideiak ere sartuak ziren. Bazen orduan halako teoria ofizial bat, Molina jesuitak formulatua zuena, nola jendeak baduen bere baitan, naturalki, indar bat, nahiarena, bere salbamendua segurta dezakeena, Jainkoaren graziaren laguntzarekin bistan denez.

Oreka hori anitzek ez zuten gostukoa, sobera baiezkoa zeukaten anitzek, bereziki Baius teologo batek. Erraten zuen gizakia errotik bekatorosa dela eta sobera ahal, eri, bere salbamendua berez segurtatzeko. Ideia horiek ja San Agustin handiarenak zirela erraten zuten, behar zirela beraz berpiztu eta hedatu. Eta Jesuiten barkaberatasunen aurka gogorri xutitu behar zela. Teorilari haien ideologiak pundi hauet zeuzkan: Antikartesianismoa eta

antitomismoa "Oro edo deus, tout ou rien" kategoria: Munduan ekintzarik, aktibitaterik ez.

Zer erran ideia nagusi horietaz? Descartes filosofoak garrantzi ematen zion arrazoari, zientziari, eta beraz arrisku zerbait izan zitekeen fedearen, eta beraz, bihotzaren kontra. San Tomasek berriz sobera goxoki bezala uztarta zituen fedea eta arrazioa. "Oro edo deus" hori ja ulertua dugu. Mundua etsaitzat hartu, eta aktibitatea zergatik kondena? Gizakiak ez dituelakotz Jainko eta arima gogoan. Kontestu horretan zuten Jansen "belgikarrak" eta Duvergier de Haurrane baiones euskaldunak elgar topatu, Lovainen. Eta adiskidetu. Ados ziren Baiusen ideien alde eta beraz Molinaren eta Jesuiten kontra. Duvergier-k Jansenius deituko zen laguna gomitatu zuen Baionara, bere ontasunean, gaur Cam de Prats deitzen duguna. Erran behar da Duvergier apezak erroak Baionan zeuzkala, eta Lapurdin ere, Katedraleko kalonje izendatua izanik eta Itsasuko erretor ere, bainan han zangoak pausatu ere gabe.

Zer egin zuten bi adiskideek Baionan, 1610 tik goiti eta bizpahiru urtez? Egunero orenak eta orenak teologo lanak eginez, San Agustinen obrak ikertzen zituztela, artetan "jeu de paume" delakoan jostatuz, luzaz "pilota" lurrerat erortzera utzi gabe, omen. Gainera Jansen Baionako kolegioaren buru izan zen, "Place des Lisses" gaurko San Andres hortan! Baionan egin zuten lanaren uelta 1643an agertuko da, "Augustinus" titulupean. Orduan eta gero ere Errromak kondentatuko zituen Jansenisten tesiak.

Baionan Duvergier errotik Jesuiten kontra jarria zen, eta haren ondotik eta ondoan, Baionako burjesiaren parte handi bat.

Sekula Jesuitak ez ziren Baionan plantatu ahal izan: hiriko kontseilariek erraten zuten bazela hemen ja aski kongregazio eta komentu, eta Jesuita aberatsek munduko ontasun guziak berezat nahi zituztela. Gero Saint Cyran eko (gaur Indre departamenduan) abade izendatu zen Duvergier. Bainan Parise ondoan eta Parise bereko Port-Royal famatuan izanen da Saint Cyranen eragin izigarria

Saint Cyranen ospea eta botereak ez ditu gustukoak Richelieu kardinaleak eta Saint Cyran preso ezartzen du, martin bilakatuz Jansenisten ikurra, anartearen Jansenius zenua baita. Eta Richelieu bera hilen delarik, Saint Cyran libratua izanen da eta triunfan sartuko Port-Royalen. Haren obra segitua izanen da Port-Royalen, 20 urtez, Martin de Barcos iloba izanen baita Saint-Cyran II. Honek erradikalizatuko du Jansenismoaren ideologia. Baina baztertua izanen da, beste jansenistek erraten baitute behar dela mundura jalgi eta munduan lan egin. Badakigu XVIII. mendean beste intelektual batzukin ideia berri sortuko dituztela jansenismoan jarraitzen dutenek, Port-Royal suntsitua izan ondoan, Luis XIV; manaturik.

Itzul gaiten XVIIIeko Baionara. Badakigu zer nolako eragina izan duen, eta XX. menda arte, gure baitan, sensibilitate jansenistak, bere gogortasun eta beldurrekin. XVIII. mendean Baionako apezpikuek, gogotik edo ez, behar zuten jansenismoa kendu bihotzetik eta ekintzetik. Borroka luzea eta luzaz alferrikakoa izan zen. Oroitu behar dugu XVIII. mende erdian sortu zuela Daguerre apezak, Larresorron, Seminarioa, jansenisten ideien garbitzeko, hauet segitzen baitzuten beren bizia Baionakoan.

## Paperetik sarera

[www.euskomedia.org](http://www.euskomedia.org)

### 44 mujeres y algunas más

**E**ste año, con motivo del Día Internacional del Euskera del 3 de diciembre, Eusko Ikaskuntza rinde homenaje a mujeres que, de una u otra forma, han marcado la historia vasca. Para ello se han elegido 44 mujeres representativas de los diferentes períodos y de las más diversas disciplinas y ámbitos de actuación. Esas mujeres protagonizan la camiseta diseñada por Kukuxumusu para la celebración.

Además de participar en la [Campaña ENE 2011](#) y ganar una camiseta (entrando en: [www.euskoiakuntza.org/ene](http://www.euskoiakuntza.org/ene)), sugerimos descubrir quiénes fueron y en qué destacaron esas 44 mujeres. Las biografías de la mayoría de ellas las

encontraremos en [www.euskomedia.org](http://www.euskomedia.org). Conoceremos aventureras, rebeldes, escritoras, cantantes, reinas, pedagogas, espías, heroínas, músicas... Galería pintoresca que completamos aquí con otras que merecerían también figurar en la selección.


Mujeres científicas ha habido pocas en nuestra historia, aunque curiosamente todas las pioneras destacaron en Física y Química. Una de las más sobresalientes fue [Dorotea Barnés](#), de breve trayectoria pero cuya aportación tuvo gran trascendencia. Su biografía (junto con las de Felisa Martín, primera doctora en Física del Estado, y Martina Casiano) se encuentran en la Auñamendi Eusko

Entziklopedia firmadas por el especialista Aitor Anduaga Egaña.

Entre finales del siglo XIX y comienzos del XX hubo una generación de mujeres, formadas en el día a día de los fogones, que lograron homologar la cocina popular vasca con las nuevas corrientes que en materia gastronómica se abrían paso en Europa. Y que además tuvieron el acierto de publicar sus recetas haciendo así que la cocina de calidad no fuera privilegio sólo de unos pocos: la Marquesa de Parabere, Nicolasa Pradera y las hermanas Azcaray. De estas [pioneras de la alta cocina](#) se ocupa Olga Macías en un artículo publicado en *Euskonews* nº 525.

Y en un país tan amante de las disciplinas físicas, no podemos dejar de mencionar a algunas de las muchas deportistas que brillaron cuando aún se decía que el cuerpo femenino no estaba hecho para esa clase de esfuerzos. Hay muchas y muy destacadas, pero nosotros hemos seleccionado a [María Antonia Uzcudun](#), "Chiquita de Anoeta", una de las mejores profesionales del frontenis, las raquetistas vascas que tuvieron su edad de oro antes de la Guerra Civil.

Como siempre, a todo ello podemos acceder por el atajo que nos ofrece [www.euskomedia.org](http://www.euskomedia.org) a través del recuadro de portada: "Atejoka".



María Antonia Uzcudun

IÑAKI PEÑA LEGAZKUE

# ¿Cómo estamos de emprendedores / as?

**E**l Estudio Global Entrepreneurship Monitor, GEM CAPV 2010, realiza un diagnóstico de la actividad emprendedora de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Por un lado, este informe analiza la actividad emprendedora de dicha región comparándola con la de otros países y regiones estatales y, por otro lado, se contrasta internamente la realidad de los emprendedores que residen en los tres territorios históricos de Áraba, Bizkaia y Gipuzkoa.

En general y salvo excepciones, la iniciativa emprendedora ha descendido por segundo año consecutivo en la mayor parte de los países, eso sí, con menor virulencia que la observada el año pasado. La actividad emprendedora vasca sigue una tendencia similar a la que muestran el resto de países y CCAA españolas GEM, con un diferencial emprendedor de casi dos puntos por debajo de la media española.

El ámbito más positivo de este informe, como ya es tradicional, es el que corresponde a las empresas consolidadas. Este debería ser el área de mayor atención por parte de las autoridades públicas vascas. La continuidad inversora para el desarrollo de I+D y acceso a nuevos mercados han de ser una prioridad en el área de promoción económica.



El porcentaje de población que tiene intención de emprender en los próximos tres años también se recupera, y aunque nos sitúa en una situación modesta en el plano internacional, permite albergar una perspectiva de mayor creación empresarial en el medio plazo. Partiendo del perfil actual y observando la evolución socio-económica de nuestro entorno es interesante reflexionar sobre las políticas que se deben poner en práctica en el futuro próximo. Sería interesante fomentar el emprendimiento en segmentos más adultos, fomentar el espíritu emprendedor entre la juventud y apoyar la creación de nuevas empresas basadas en el conocimiento, aprovechando el nivel de formación de este colectivo. El emprendimiento femenino sigue siendo una asignatura pendiente en la CAPV.

El acceso a los recursos financieros se plantea como uno de los principales obstáculos. En este sentido, resulta imprescindible desarrollar fuentes alternativas de financiación que se ajusten mejor a las características y el riesgo que implican tales iniciativas. Los inversores informales desempeñan un papel fundamental a este respecto. Los datos que ofrece GEM respecto a la inversión informal en la CAPV son positivos. La tasa se consolida en valores cercanos al 4% de la población adulta y en una posición de claro liderazgo frente al resto de Comunidades Autónomas y países de nuestro entorno. Por otro lado, se detectan ciertas señales que apuntan hacia una mayor profesionalización en el segmento de inversión informal en la CAPV.

Se observa que la administración pública vasca y las agencias especializadas en el apoyo a emprendedores tienen un papel clave en el proceso de incubación y preincubación en la CAPV. De hecho, las políticas públicas representan el área principal de factores favorecedores de la actividad emprendedora.

Con respecto a la posición comparativa de la CAPV con España, la primera cuestión a destacar es que de los 17 factores evaluados, solo 2 presentan peor valoración en la CAPV: la dinámica de mercado y capacidad de innovación del consumidor, cuestiones que pueden tener una gran importancia para el éxito en el lanzamiento de nuevos productos. Resulta muy interesante el contraste en la valoración de la capacidad innovadora del empresario vasco y la estimación innovadora del consumidor en España. Por un lado, los datos muestran que el consumidor español parece menos conservador a la hora de probar nuevos productos que el de la CAPV, y por otro, que la capacidad de adaptación e innovación del empresario vasco es mayor que en el Estado, y con una diferencia notable (casi un punto).

Para finalizar, debemos destacar que se empiezan a valorar positivamente los esfuerzos realizados en la CAPV para incorporar el espíritu y el desarrollo de la capacidad emprendedora en el sistema educativo.

**Global Entrepreneurship Monitor. Comunidad Autónoma del País Vasco. Informe Ejecutivo 2010 /**  
Iñaki Peña Legazkue dir. – 95 p. : gráf. ; 30 cm. – Donostia : Eusko Ikaskuntza ; Orkestra, 2011. –  
ISBN: 978-84-942889-5-468.

## Gertatu zen



Manuel de Irujo

Kanpoko kontuak eta etxe barneko kontuak

Asuntos externos y asuntos domésticos

Affaires externes et affaires domestiques

**1** 921eko udazkenean, Eusko Ikaskuntza hasten zen Hirugarren Kongresua izango zena prestatzen, Gernikan 1922ko irailean egiteko. Batzorde Iraunkorrarentzat "Herrialdearen arazo biziak" zirenak tratatu behar ziren kongresu hartan: Euskal Hizkuntza eta Irakaskuntza.

Eusko Ikaskuntzaren Hirugarren Kongresuak, gainera, hain desiratua zen Autonomiari buruzko Kongresua prestatzeko balio izango zuen, Elkartek bere sorreratik bertatik hartan lan egiten zuela. 1922an, beste antolaketa batzorde bat eratu zen, ondokoek osatua: Julian Elorza, Jose de Orueta, Eduardo Landeta eta Politika Zientziak Saileko kideak (1931n Euskal Estatuko Estatutu Orokorra idatziko zutenak).

### Ofrecimientos

Hace noventa años, tres personalidades se dirigieron a Eusko Ikaskuntza ofreciendo desinteresadamente sus servicios. El diputado foral por la merindad de

Estella Manuel de Irujo escribió a la Junta Permanente haciéndole saber su disponibilidad "para cuanto pueda beneficiar a los intereses encomendados a la Sociedad". El doctor Hipólito Irigoyen manifestó su deseo de contribuir a las investigaciones de la Sociedad en relación con su profesión médica. Y Jenaro Xavier Vallejos, futuro escritor, poeta y periodista, por entonces joven estudiante en Madrid, se brindaba a investigar sobre historia vasca en las Bibliotecas Nacionales y de la Academia de la Historia.

### Plaintes au sujet des publications

Les plaintes au sujet de la parcimonie avec laquelle

paraissent les éditions de la Société ne datent pas d'aujourd'hui. Il y a quatre-vingt-dix ans le Conseil Permanent a dû répondre aux membres au sujet du retard accumulé par les publications de livres, et surtout des comptes rendus des deux premiers Congrès.

Le Conseil s'est justifié en expliquant que la grande quantité de textes, les corrections d'épreuves de la part des auteurs mêmes et, surtout, les délais de l'imprimerie étaient la cause de ces retards. Elle avait bon espoir que cela s'arrangerait lorsque serait réorganisée l'Imprimerie Provinciale de Guipuzcoa, propriété de sa Députation.

## Kultura Ereileak

### Dantzan.com, euskal dantzaren komunitatea sarean

Euskal Herrian dantzaren inguruan gertatzen diren albisteak, ekitaldiak, iritziak eta bestelako kontuak jasotzen dituen webgunea dantzan.com. 2000. urtean, posta zerrenda bat sortu zen euskal dantza zaleak kontaktuan izateko, eta urtebetera erditu zen dantzan.com webgunea. 2003. urtean, kultura alorreko euskal webgune onenaren Buber saria jaso zuen dantzan.com-ek. Gaur egun, dantzan.com izeneko elkartea kudeatzen du webgunea, eta komunikazioaz gain, dantzaren

kudeaketa eta formakuntzan lan egin eta eragitea du helburu. Dantza tradizionalaren formakuntzaren alorrean Gipuzkoako Foru Aldundiak babestutako Dantza Ikasi izeneko programa zuzentzen du dantzan.com-ek.



Teknologia berriei estuki lotuta, software irekia eta Creative Commons lizenziak darabiltza dantzan.com-ek. Egunero egunero komunikabide orokorrekin dantzari buruz jasotzen dituzten albisteak islatzeaz gain, albiste propioak, bideoak eta argazkiak sareratzen

ditu. Dantza klasikoa, garaikideak edo hip-hopak, dantza estilo guztiak dute tokia webgunean, baina guztien artean dantza tradizionala da gure kuttuna, eta euskal folklorea dokumentatu eta zehatz jasotzea dugu eguneroko poza. Iurreta,

Arizkunera  
edo  
Larrainera,  
hara eta hona  
dabiltza

dantzan.com-eko kamera eta erreportariak, dantza non dantzazaleon gogoa han izaten baita.

Dantza eta euskaraz, biak uztartzen ditugu. Izan ere, euskaraz jao zen, eta euskaraz hazi da dantzan.com.

Dantzaren inguruko komunikazioan euskarari lehentasuna eman diogu euskal komunitatean, eta dantza edukiekiko interesak, euskarara hurbildu ditu hainbat lagun.

Hamar urteotan 1.500 albiste, 1.000 bideo, 10.000 artikuluk osatutako hemeroteca, 3.000 ekitaldiren iragarpenak, 7.000 argazki, eta beste hainbat eduki sareratu ditugu. Baina, zenbakiez harago, komunitate bat artikulatu izana da dantzan.com-en balio handiena. Dantzari buruz jakin eta dantzaren inguruan aritu nahi duen komunitate bat, egunero bisitatu eta bere proposamenak, ideiak, albisteak eta iritziak konpartitzen dituen komunitate bat.

## Argitalpenak



Etnografía de la zona minera vizcaina. Fuentes orales y tradiciones musicales

AUTORES: INGRID KUSCHICK, RAPHAËL PAREJO-COUDERT  
BILBAO: KOBIE, DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA, 2009  
152 P. : IL ; 27 CM.  
ISBN: 978-84-7752-470-X

El Anejo 10 de la revista Kobie publica este trabajo de recogida y análisis de entrevistas y canciones procedentes de la zona minera vizcaína. El estudio reconstruye como se hizo y organizó, como se vivía y percibía la sociedad en tiempos de auge de la mina. Luego identifica y evalúa las huellas de identidad vigentes años después del cierre de la última mina de hierro, en la idea de que el discurso de la población actual forma parte importante de la memoria colectiva y por lo tanto del patrimonio etnográfico. Ingrid Kuschick firma la primera parte (*Etnografía de la zona minera vizcaina*) y Raphaël Parejo-Coudert la segunda (*Tradiciones musicales populares de la zona minera de Bizkaia*).



Herri Musikaren 6. eta 7. Jardunaldiak

EGILEAK: JUAN MARI BELTRAN ET AL.  
BILBAO: HM ZALEAK – HERRI MUSIKAREN TXOKOA, 2010  
275 OR. ; IR. ; 24 CM.  
ISBN: 978-84-937451-3-4


Oiartzungo Herri Musikaren Txokoak eta Hernaniako Musika Eskola Publikoko Alboka Taldeak elkarlanean albokaren ibilbidea aztertu zuten jardunaldiak antolatu zituzten 2007an. Euskal Herriko soinu tresna bereziaren ondoan *launeddas-a* izan zen Sardiniano adituek aurkeztena. Kaleetan barrena ibiltzen den albokaren ondoren, urtebetek beranduago, kaleetan entzunagatik askorik mugitzenez den soinu tresna baten txanda izan zen. Horretarako, hainbat eskualdetako adituak bildu zituzten Oiartzunen Herri Musikaren Txokoak eta beraiekin antolakuntzan aritu ziren Asociación Cultural Campaners de la Catedral de Valencia, Amurrioko Kanpajole Elkarte eta Arientzako Kanpajole Eskolak.



Estudio sobre Derecho sucesorio vasco. Bases para un nuevo régimen

AUTORES: JOSÉ JAVIER HUALDE, LEIRE IMAZ, ET AL.  
BILBAO: UPV/EHU, 2011  
135 P. ; 21 CM.  
ISBN: 978-84-9860-550-1

La Comunidad Autónoma Vasca padece hoy en el ámbito del Derecho civil de una irracional fragmentación legislativa que se hace sentir especialmente en materia sucesoria. La causa radica en la coexistencia de normas del Derecho Civil Foral del País Vasco y del Código civil español. Además, la Ley vasca no prevé un ordenamiento sucesorio único y uniforme para los tres Territorios Históricos. Esta obra contiene una propuesta de superación de tan severo problema a partir de la formulación de un verdadero Derecho aplicable al conjunto de los ciudadanos y ciudadanas vascas en un aspecto tan importante de las relaciones entre particulares como es el Derecho de sucesiones.



Luis Irizar Zamora

AUTOR: JUAN AGUIRRE  
DONOSTIA: SUKAL LEKU FUNDAZIOA, 2011  
44 OR. ; IL. ; 24 CM.  
ISBN: 978-84-939571-0-0

Esta es la primera biografía dedicada a Luis Irizar Zamora (La Habana, 1930), figura de referencia en la cocina del siglo XX. Partiendo desde el último peldaño de la escala profesional, inició su carrera en San Sebastián y Madrid. A comienzos de los 50 marchó a París y luego a Inglaterra donde alcanzaría el grado del jefe de cocina del Hilton de Londres. En 1967 abrió la primera escuela oficial de hostelería del País Vasco en la que se formó una generación brillante. Especialista en el arte del gran Escoffier, decano de la Nueva Cocina Vasca, laureado con infinidad de reconocimientos, Luis Irizar Zamora merecía esta biografía exquisitamente editada por Sukal Leku Fundazioa.

## ATEJOKA036



AZAROA  
NOVIEMBRE  
NOVEMBER  
2011

Argitaratzailea  
Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia, Miraconcha, 48. 20007 DONOSTIA.  
Argitalpen Idazkaria  
Eva Nieto  
Argazkiak  
Eusko Ikaskuntzako Argazki Artxiboa, Euskomedio Fundazioa  
Harpideratzak  
Atejoka etxean jaso nahi baldin baduzu, idatzi edo dei egin ezazu helbide hauetara:

Eusko Ikaskuntzako  
Bulego Nagusiak  
Miramar Jauregia, Miraconcha, 48  
20007 DONOSTIA  
Tel. 943-30855  
Fax 943-219556  
eii-sev@eusko-ikaskuntza.org.  
Arabako Bulegoa  
General Alava, 51º  
01005 GASTEIZ  
Tel. 945-231552  
Fax 945-148752  
gasteiz@eusko-ikaskuntza.org.

Bizkaiko Bulegoa  
Pl. del Castillo, 43 bis, 3. D  
31001 IRÚNEA  
Tel. 948-222105  
Fax 948-21737  
iruna@eusko-ikaskuntza.org.  
Iparraldeko Bulegoa  
51 quai Jaureguiberry  
64100 BAIONA  
Tel. 559598290  
Fax 55946844  
baiona@eusko-ikaskuntza.org.

Ordutegia  
Astelabenetik ostegunera 9:00-13:00  
eta 15:30-17:30; ostirala, 9:00-13:00  
Horario  
De lunes a jueves de 9:00-13:00 y de  
15:30-17:30; viernes de 9:00-13:00  
Babesarekin / Con el patrocinio  
Iparaldeko Bulegoa  
51 quai Jaureguiberry  
64100 BAIONA  
Tel. 559598290  
Fax 55946844  
baiona@eusko-ikaskuntza.org.

L.G.: SS-1150-2008. ISSN: 1889-0342  
Fotokonposaketa: Ipar SL  
Inprimategia: Michelena a. g. Astigarraga  
Babesarekin / Con el patrocinio  
BFA  
DFB  
Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia